

## 0.- SARRERA

Badirudi uda iristear dagoela, edo hala dio egutegiak, baina duela 15 egun Bintzek berriro harrotu egin zen, eta negu honetan gehiegitan egin duen moduan

Honen harira, Bidankozarteko 6. zenbakian, joan den negukoan, uholdeei buruzko monografiko bat egiten zen, haien

artean Zangoza 1787an suntsitu zuena aipatuz, 39 etxe baino ez zituenaz utzi.

Ba duela gutxi aurkikuntza bat egin dut, ordukoan gazte bidankoztar bat hil baitzen Zangozan: Pedro Francisco Laviano Reta zuen izena, 17 urtekoa eta gaurko *Calderero* etxekoa (garai hartan beste izen bat izango zuena). Bere

heriotza-agiriak hauxe dio: “Zangoza hirian gertatutako hondamendian hil egin zen, hor bizi baitzen merkatari-mutila, eta hilda aurkitu zuten bere jabearen ondoan”.

Baina eguraldiaz aritzeaz nazka-eginda gaudenez, goazen beste kontuetara, zuen interesa erakarriko dituzten itxaropenean.

## 1.- HISTORIA APURRAK - SAN CRISTOBALEKO IHESA (1938/05/22)

1936ko uztailearen 18an emandako estatu-kolpeak sorturiko gudan geunden sarturik orain dela 75 urte, bi urte betetzeko bidea zeraman gatazka zelarik. Egoera horretan, “*San Kristobaleko gotorlekua*”, Iruñeko Ezkaba edo San Kristobal mendiko gailurrean, gartzelatatz erabiltzen zen, hor preso zirelarik militante edo lagunkide errepublikarra, sindikalistak edo politikariak.

Orduan 2.500 preso zeuden gizazpiko egoeran, eta guda garaiko espetxe batez uler genezakeenez gain, pilaketa, hotza eta kartzelako arduradumen ustelkeria (beste behin ere ustelkeria), zeinak egiten zuen presoendako janariarendako zihoin dirua beraiek gelditzea, gosea han sartutakoek pasatu behar zituzten eskasiei honela gehituz.

Kontua da, 1938ko udaberrian, San Kristobalen bidankoztar bat preso zegoela: Vicente Mainz Landa (*Landa*). Bere kasua, hainbatena bezala, ez zen politikari arduradun edo sindikalista batena, ezta are gutxiago ere. Soilik, langileen mugimenduarekin kideetasuna zuen elektrikari bat zen (horregatik

Bidankozeko errotan lan egin zuen) eta Erronkaribarren ospaturiko mitin sozialista batera joana zen. Jada 1934ean Frantziako muga zeharkatu behar izan zuen sindikalista arazoren bat zela medio, baina 1936ko otsailean ezarritako amnistiarekin itzuli zen. Eta urte horretako uztailean, atxiloturik izatea ezin izan zuen saihestu.



Bidankoze, garaiotan, ia bere osotasunean herri *eskuindarra* zen: 1936ko apirilean ospaturiko hauteskundeetan eskuineko alderdiek 111 boto jaso zituzten eta ezkerreko alderdiek 15 besterik ez. Vicente Mainz Landarena ia familia ezkertiar bakarra zen, eta *altxamenduaren* ondoren errepresio frankistaren miran jarri zituena, eta Vicente atxilotua izan zen.

Horrela, San Kristobaleko kartzelan ia bi urte eman ondoren ihesaren eguna iritsi zen, eta Vicente ihes egiten saiatu zen, 794 beste presokideekin, Europako historian kartzela batetik egindako ihesaldirik handienean eta, ziurrenik munduko historian ere. Gehienak, ia 600 iheslari, espetxera itzuli ziren ihesa agerian gelditu zenean. Beste 220ren bat, haien artean gure Vicente, ihesari eutsi zioten eta haietako asko *chizatuak* izan ziren ihesaren hurrengo bi egunetan San Kristobaletik gertu zeuden hainbat tokitan. Vicente, ordea, 20 egun bizirauten lortu zuen, baina azkenean norbaitek salatu eta garondoan tiro batez hil zuten Elian 1938ko ekainaren 10ean.

Gure historiako atal honetan sakondu nahi duenarentzat, lau gomendio: “*Fuerte de San Cristobal, 1938: La gran fuga de las cárceles franquistas*” (Pamiela, 2008), Felix Sierra eta Iñaki Alforjaren liburua eta “*Los fugados del Fuerte de Ezkaba*” (Pamiela, 2013) Fermín Ezkietaren liburua. “*Ezkaba, la gran fuga de las cárceles franquistas*” (Eguzki bideoak, 2006) Iñaki Alforjaren bideoa. Eta azkenik, “*La fuga*” (Ediciones B, 2011) Carmen Domingoren eleberria.

## 2.- HEMEROTEKA - ERREPRESALIA FRANKISTAK LANDA ETXEAN

Landa etxeakoentzako errepresalien harira, hemerrotekak hainbat adibide erakusten digu. Albisteetako bat duela 75 urteko udakoa da, eta beste bi daude.

Lehenengo berria, estatu-kolpea baino hilabete eskas bat beranduago:

(Diario de Navarra - 1936/08/30)

**La benemérita de**  
Roncal ha detenido en Vidangoz a Enrique Mainz Landa, al que se le acusa de haber protegido la huida a Francia de algún fugitivo y de haber hecho armas contra el movimiento actual;

Urte bat beranduago, Mainz Landa anaien ondasunen konfiskatzea:

(Diario de Navarra - 1937/09/28)

**Por la Comisión provincial de incautaciones de bienes de Navarra, se ha dispuesto la instrucción de expedientes sobre responsabilidad civil de los siguientes:**  
Vicente Mainz Landa, de Vidangoz.  
Enrique Mainz Landa, de Vidangoz.

Honen ondoren, aipatutako Vicente Mainz Landaren erahilketa San Cristobaleko ihesan.

Eta hiru hilabete beranduago, Marina Mainz Landari, iritsi zitzaion txanda:

(Diario de Navarra - 1938/08/31)

**INCAUTACION DE PLATA AMONEDADA**  
24 ptas. a Marina Mainz Landa, de Vidangoz, por viajar sin salvoconducto.

Ba hori, Landatarrei errepresioa haien gainean pairatzen tokatu zitzaizela, ondoren gerrako irabazlea izango zen alderdiaren gehiegikeria.

## 3.- HIZTEGI BIDANKOZTARRA - BEHIAK ETA IDIAK

Hiztegi bidankozatarraren lehenengo emanaldian ardi-aziendari buruzko hitzez aurkezten genuen eran, oraingoan behi-aziendari iritsi zaio txanda, egurgileen familietara lotuta zegoen azienda. Idi eta zezenei dagokiena ere sartuko dugu:

### ADARRAK

**Astaje:** Adakera;

**Kandelera:** Corniveleta, adarrak goruntz dituen behia;

**Kornikatxa:** Adarrak beheruntz dituen behia;

**Kuerniantxa:** Adar zabaleko abelburua;

**Kuernitisa:** Corniveleta, adarrak goruntz dituen behia;

**Kurra:** Mogona, adar bakarrekoko behia;

### AHOTSAK ETA HOTSAK

**Agora, agora:** Behi/idiak deitzeko hotsak goruntz ibiltzeko lurra lantzean;

**Apal, apal:** Behi/idiak deitzeko hotsak beheruntz ibiltzeko lurra lantzean;

**Gramar:** Marru egin;

**Ño, ño, ño:** Behia deitzeko era;

### BESTE BATZUK

**Bardino:** Ile gorri edo beltza duen idia edo zezena;

**Betiello:** Urte erdira arteko idia. Latineko *vitullus* (txekorra, txahala).

**Boyero:** Idiak eta behi-azienda zaintzen dituen unaia;

**Braguero:** Errapea;

**Gavilla:** Idientzako olo lehor edo belarreko eskukada.

**Kuliestro:** Oritza;

**Remugar:** Hausnartu;

**Tenero:** Berrogei urte baino gazteago den kumea;

**Toridera:** Susare;

**Uniteta:** Errape bakarrean esnea duen behia;

**Vacia:** Esnerik gabeko behia (matxorra, errape-itsua);

Berriz ere, gai honi (edo beste batzuei) dagokion edozein ekarpena ongietorria izango dela setatuko dut.

## 4.- TOPONIMIA - ESARENA

Oraingo honetan aztertuko dugun toponimia *Esarena* izango da. Herriatik gertu dagoen eremu bat da, baina agian ez da *Ziberria*, *Landeta*, *Elizarena*, eta abar bezalako beste toponimo batzuk bezainbeste erabiltzen.

*Ziberriako* putzuan bukatzen den *Esarenako erreka*ren inguruari deitzen zaio *Esarena*. Erreferentzia nahastezina bat ematekon, *San Sebastian* ermita paraje honetan dagoela dela esango dugu.

Aldizkari honen lehenengo zenbakian aipatu genuen bezala, oraingo Bidankozeren ondoan zegoen beste herria ("Bidangoz" edo "Bidangoiz") ia ziurtzat jo dezakegu, *Esarenan* kokatuta zegoela. Herri hori 1198 (ordukoak dira herriaren inguruko azken aipamenak Leireko dokumentazioan) eta 1268 urteen arteko momentu batean desagertu zen.

Hala ere, ezin da ezer zehatzagoa esan, izan ere, orduko iturriak oso eskasak baitira. Beharbada izurrite baten ondorioz desagertu zen, 1348an izurri beltzarekin gertatu zenaren antzera. Ordukoan, Nafarroako populazioaren erdia hiru hilabeteetan hil zen izurri beltzaren ondorioz, eta hainbat herri jendez hustuta geratu ziren. Gaur ezagutzen dugun Bidankozen, hamabost etxe gelditu ziren jendearekin (ez dakigu zenbat izango zituen aurretik, baina urte gutxiren buruan

berriro ere 30 etxe zeudenez, izurritearen aurreko kopurua antzekoa izango zela uste dugu), eta Erronkaribarren ez zen kaltetuena izan.



Baina Bidangoiz herriaren inguruan beste aukera batzuk daude. Horietako bat, gaur egun ezagutzen ez ditugun arrazoiengatik, herri horretako biztanleria gaurko Bidankozera joan zela izan daiteke, segurtasun kontuengatik, uholderen batengatik edo auskalo zergatik.

Dena dela, dakigun gauza bakarra da, 1268an eliza besterik ez zela gelditu. Litekeena da etxeren bat gehiago gelditu izana.

Parajearen izenari dagokionez, *Esarena* toponimoa gutxienez 1586tik (*Essarena*) agertzen da dokumentazioan. Eta hitz hau hurrengo urte eta mendeetan errepikatzen da.

Gaur egun duen grafiari kasu eginez (azken lau mende eta erditan izan duen berdina da), etimologikoki *Esarena* horrela zaititu daiteke: *Esa-* (igeltsua) + *-rena* (edutezko atzizkia); "*igeltsuarena*" edo "*igeltsutik eratorrikoa*" izan daiteke esanahia, eta hori nik ezagutzen dudanagatik, zonalde horretan dagoenarekin ez du zerikusi handirik.

Baina beste dokumenturen batean, toki honi *Echerena* deitzen zaio (1701). Agian honek toponimoaren jatorriaren inguruko zantzua eman ahal digu: *Etxe-* (etxea) + *-rena* (edutezko atzizkia). Beraz, honen esanahia "*etxearena*" izan daiteke; beraz, etxe bakarra geldituko zela uler dezakegu.

Berdina gertatu zen Nabarzatzen, eta bertan ere etxe bakarra zegoen.

Azkenik, aipatu behar dugu gaur egun Erronkarira doan pista ere *Esarenatik* igarotzen dela. Zonalde horretatik doan pista zatia berria dela, izan ere, orain dela bi hamarkada egin baitzen. Tarte horretan ibilbidea Frankismoko presoekek egindakoaren ezberdina da (hauei urtero omenaldi bat egiten zaie Igariko gainean). Jatorrizko ibilbidea Argedasen ikulutik hasi eta Bidankozartetik igotzen zen.

Beraz, bere izenaren jatorria bata zein bestea izan arren, argi dago *Esarena* historia duen zonaldea dela.

## 5.- OIKONIMIA (ETXEEN IZENAK) - MALKORNA



*Egullorre* auzoan bukatuko dugu etxeen bigarren itzulia. *Malkornaren* txanda da eta Bidankozeko beste etxeen historiarekiko ezberdintasunak baditu. *Malkorna* etxeak azkeneko bi mende hauetan gorabehera handiak izan ditu.

Izenarekin hasiko gara, honetan ere, etxea salbuespena baita. Beste etxe gehienek jabea aipatzen duten bitartean, *Malkornak* leku baten izena aipatuko luke hipotesi logikoenaren arabera: *malkor-* (harkaitz) + *-na* (atzizki posesiboa), hau da, *harkaitzean dagoen etxea*, harkaitz baten gainean eraiki zutelako. Ezin da baztertu, hala ere, beste adiera bat: *malkartsua* aldapa batean kokaturik baita.



Izenaren sorburua hau izanen balitz, Bidankozeko etxeen arau orokorrarekin ez litzateke bat etorriko. Hau da -RNA bukaera duten izenek (*Landarna*,

*Lengorna*, *Hualderna*) bokalez bukatzen den izenaren atzetik kokatzen dira (Landa, Lengo, Hualde). Arau honen arabera, *Malkorna* izena *Malko* hitzatik etorriko litzateke. Logika izango luke bertan bizi zen baten izengoitia izango balitz.

Nire iritziz, azalpenik logikoena lehena da. Beharbada hasieran *Malkorrana* edo *Malkorrena* zen eta erabileraren poderioz

murritzitu zen.

*Malkorna* etxearen historiarekin hasteko unea heldu da. Azken 100 urtetan oso jende gutxi bizi izan da etxe honetan. Eta orain ikusiko dugunez, egoera hau aspaldikoa omen da.

Duela urte gutxi, *Txantxolit* etxeke Juan Ignacio, Jesús eta Joaquín María Sanz Iriarte anaiek berreraiki zuten *Malkorna* etxea hiru etxebizitza egiteko.

Aurretik 1960.hamarkadaren

bukaeran eta 1970.hamarkadan Bidankozeko Ehun-Kooperativa egoitza izan zen. Garai hartan eraikina Aiza bulguarena zen.

Urte batzuk lehenago, 1963an, bertan Aiza bulguak udal-hiltegia eraiki zuten, aurreko hiltegi zaharra ordezkatzeko.

Zaharra *Pexenena*, *Lixalte* eta *Ituriondo* etxeen artean dagoen plazatxoan zegoen eta zeharbidea egin zenean, 1950ko hamarkadan, desagertu egin zen (errepidea

ordura arte *Santxena* etxean bukatzen zen). *Malkorna* etxea hiltegi oso denbora gutxitan erabili zen.

Aiza bulguak eskuratu aurretik suak etxea hartu zuen eta irudian ikusten den bezala gelditu zen. Trinidad Montes Fuertesek (*Montes / Hualderna*), garai hartan 4 urte besterik ez zituen, gogoratzen du *Montes* etxeke balkoia jendez gainezka zegoela, ezin ezer egin, sutea ikusten. *Montes* etxea, gaur egun desagertua, *Malkorna* parean zegoen.

Gertaera azaltzen duen egunkariko berriak dio etxeak urte asko zeramala jendea bizi gabe eta sutearen garaian lastategi moduan erabiltzen zela. Bere jabea, Ramón Aizagar, Jaurrietan bizi zen.

**De Roncal se han recibido noticias dando cuenta de un incendio que se declaró en una casa de Vidangoz propiedad del vecino de Jaurrieta Ramón Aizagar. La casa, que desde hace mucho tiempo se hallaba reshabitada, está en la actualidad convertida en pajar. El edificio quedó destruido por el fuego, calculándose las pérdidas en 9.000 pesetas. El Juzgado instruye el sumario correspondiente.**

Sute aurretik ere, nonbait, ez zen inor bizi bertan, behintzat 1861. urtetik. Urte hartan eliza-matrikulak egiten hasi ziren, hau da, Bidankozeko arimen zerrenda, eta ordutik oso gutxitan aurki dezakegu jendea *Malkornan*.

Horren aurretik zegoena hipotesi hutsa da. Etxea oinordetu zuen eta bertan bizi izan zen azkena Juan Miguel Hualde Mayo izan zen. Francisca Escolastica Perez Garderekin (*Diego*) ezkondu zen. Bidankozen bi seme izan zituzten. Bigarrena jaio zen urtean, 1846an, Juan Miguel Hualderen aita hil zen, Pedro Miguel Hualde Urzainqui (*Malkorna*). Beharbada, urte horretan edo hurrengoan familia osoak (alarguna, senar-emazteak eta bi semeak) Bidankozetik alde egin zuten. Gertatu zena gertatu zela, familia 1846 eta 1861 bitartean herritik desagertu zen.

## 6.- BIDANKOZE BIBLIOGRAFIA - "HIRU GUTUN IRUÑETIK"

Uda hasi berri da, eta irakurketarako sasoi egokia iritsi da. Gainera, 2004tik urtero bezala eta gauden daten inguruan, Igariko gainan Igar-Bidankoze-Erronkari errepideko kutxa zabaldu zuten Frankismoko Esklabuei Omenaldia ospatu egin da.

Bi faktore hauek batuz, aukera egokia da iaz argitaratutako liburu bat aipatzeko eta, bere korapiloaren zati bat Bidankozen gertatzen dena. "Hiru gutun Iruñetik" (Pamiela, 2012) du izena, Patxi Zubizarretak idatzia.

Bertan bi gipuzkoarren arteko adiskidetasunaren istorioaz aritzen da, gerra zibilak banatzen dituen bakoitza alderdi batean. Bata, soldaduskan estatukolpea gertatzen denean, alderdi frankistan geratuko da eta maila militarrean igoko da. Bestea, alderdi errepublikanoarekin lotua, atxilotzen dute eta Bidankozera bidaliko dute, nahitaezko lanak egitera Igar-Bidankozeko errepidearen eraikuntzan.

Adiskidetasun harreman hori atzean izanda, intrigazko istorio bat sortzen da, oso azkar irakurtzen dena, eta gainetik

jakinarazten gaitu gatibu gaixo haiek bizi ziren baldintzak, liburuan emandako hainbat xehetasun egiaz gertatutakoak baitira, protagonistaren istorioa ezean.

Momentuz, Euskaraz baino ez dago baina, Patxi Zubizarreta egileak berak duela gutxi esan zidanez, hurrengo urtean, 2014an, erderazko itzulpena argitaratuko du Noticias Taldeak.

Esanak esan, hor dago "Hiru gutun Iruñetik", uda honetarako liburu on bat.

## 7.- MARIANO MENDIGATXAREN GUTUNAK (ZUHAITZAK ETA ZUHAIKKAK 2)

Azaroaren 29ko eskutitzaren kontakizuna gelditu zen tokian jarraituko dugu. Bertan, Bidankozen hazten diren zuhaitz eta zuhaixkei buruz hitz egiten zen baita ematen zieten erabilerei buruz ere. Ler (pinu), izei eta bagoei (pagoei) buruz esandakoa jada ikusi genuen. Jarrai dezagun, beraz, puntu horretatik.

Mariano Mendigatxak aretxaren (haritzaren) inguruan "asko ez dela hazten" zioen, "Bidankozen asko ez dago eta aretxaren egurra mahaiaik, atea eta ardo upelak egiteko ona da eta bagoak baino su hobea dauka".

Artakarroari (arteari) dagokionez, "oso egur gogorra du eta arotzek hura bilatzen dute tresneria egiteko", adierazten zuen Marianok. Egur bezala duen balioaz, "zuhaitz guztietatik egurrik onena duena da" dio. Honez gain, errautsak garbitzeko erabiltzen zirela aipatzerakoan, "emakumeek artearen errautsak beste errautsekin nahastu ezean, eskuak pitzatu egiten zaizkie" adierazten du.

Ondoren, bagoa, aretxa eta artakarroaren fruituei buruz hitz egiten du, hurrenez hurren *magalla*, *zin* eta *artazi*

deiturikoak (eta guztiei, oro har, *ezkur* deitzen die). Ezkur urtea bada txerriak ezkur bila eramaten direla dio. Eta artakarroaren ezkurra onena dela eta jendeak gaztainak balira bezala jaten dituela.

Zuhaitz bakoitza hazten den tokiari dagokionez, Marianok dio "izeiak eta lerrak oxezkietan (pakoetan) ere hazten dira, pagoa mendizerretan, haritza ekietan eta artea toki harritsuetai".

Zuhaixkei dagokionez, "ezpela, ilurria (elorría), korostia (gorostia) eta otaka (ote zuria) ohikoenak dira". Guztion artean indartsuena ezpela da eta horrekin koilarak eta orraziak, eta arotzek beste materialetan apaingarriak ipintzeko erabiltzen dute, eta artakarroa bezain su ona dauka. Ilurriak ere su ona dauka eta arotzek ardatzak egiteko erabiltzen dute. Aragoitik datoz eta mendi osoa erosten dute enbor azala kentzeko. Azalarekin goma egiten dute txoriak bizirik harrapatzeko.

1903ko abenduaren 18ko eskutitzean jada, zuhaixken errepasoa *txutxika* (intsusa) eta *urrutxarekin* (hurritza) amaitzen du. "Txutxikaren hostoa

*udaberrian biltzen dute urte osorako; katarroa izanez gero, haren loreak egosten dira eta azukre edota arrautzaren gorringoarekin (ala biak edukiz gero, askoz hobe), dena irabiatu eta lorearen urarekin nahastuta katilukada bat edanez gero, bularra biguntzen da). Ereingaraia igaro ostean, askok tindagai beltza egiteko biltzen dute. Bere egurra aizkoraren kirtena egiteko ona da. Sutarako txarra da".*

Urrutxari dagokionez, harekin "animaliei jartzen ohi zaien lepokoa (zintzarria zintzilikatze) egiten da. Honez gain, saskiak, uztaiak eta gauza gehiago ere egiten dira. Urrutxarekin almadien enborrak lotzen dira saltzera eramateko. Askok makila hauekin ogibidea irabazten dute, moztu eta saltzen".

Bukatzeko, fruta-arbola bi besterik ez ditu aipatzen, *arantze* (aranondoa) eta *itzagurtzea* (intxaurrendoa). Beste zuhaitz asko daudela dio, baina probetxukoak ez direnez, ez ditu aipatzen. Orogen gainetik, badirudi Mariano Mendigatxa gizon praktikoa zela.

## 8.- BUKAERA

Eta lerro hauekin Bidankozarteko bigarren urte-zikloa ixten da, Bidankozeko hainbat istorio eta bitxikeri jakinarazteko aukera eman diguma.

Bi urte hauetan etxeen historia eta istorioak ikasi ditugu, haibat tokien izenen

zergatia, ahaztutako albisteak, antzinako ohiturak, Bidankozeko hiztegia, nolakoa zen herria Mariano Mendigatxaren garaian eta beste gauza batzuk.

Zuen gustukoa izan delako itxaropenean, niri dagokionez luzerako

geratzen zaizkit indarrak, beraz, hiru hilabetean behin jarraituko naiz argitaratzen.

Agur bero bat eta San Agustinera arte.